

PAZIENTEENTZAKO ETA FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA 5.B UNITATEA - IGKU

1. Erizaintzako Unitate honetan, ebakuntza kirurgikoa egin behar zaien pazienteen harreraz eta ebakuntzarako prestakuntzaz arduratzen gara. Gainera, ebakuntzaren ondoren egunean bertan etxera itzuliko diren pazienteak ere zaintzen ditugu.
Ospitaleratu beharra duten pazienteak dagokien solairura eramango dira (Kirurgia, O.R.L., Traumatologia, etab.), ebakuntzaren ondoren.
2. Unitate honetako ordutegia:
 - Astelehena: goizeko 8:00etatik 22:00ak arte.
 - Asteartetik ostegunera: goizeko 7:00etatik 22:00ak arte.
 - Ostirala: goizeko 7:00etatik 21:00ak arte.Udako hilabetetan ordutegia 20:00etara bukatzen da.
3. Honako honen berri emango zaizu:
 - * Zer teknika erabiliko ditugun eta zer-nolako zaintza egingo zaizun, bai eta Unitatean zenbat denbora egongo zaren ere, gutxi gorabehera.
 - * Ebakuntza zer solairutan egingo den, eta ebakuntza amaitutakoan ABUra (Anestesia ondoko Bizkorketarako Unitatea) eramango zaitugun ala, zuzenean Unitate honetara itzuliko zaren.
4. Ebakuntzaren ondoren, Medikiak pazienteari eta familiartekoei edo hurbilekoei ebakuntzaren berri emango die. Informazioa Ebakuntza-gelen edo pazienteen gelen sarreran emango zaie.
5. Jo txirrina beharrezkoa duzun guztietan. Modu horretan, lana erraztuko diguzu; izan ere, erizaintzako kontrolera joaten bazara, beharbada, gure lana oztopatuko duzu.

6. Unitatean arnairuak daude, ebakuntzaren ondoren ospitaleratu beharra duten pazienteek beren arropa eta oinetakoak gorde ditzaten, dagokien solairura eraman arte. Arnairu horietan 0,50 zentimoko edo euro leko txanponak sartu behar dira; eta diru hori gero itzuliko zaizu. **EZ UTZI BALIOZKO OBJETUAK ARMAIRUAN, HAUETAKO bat (bitxiak, erlojua, dirua, mobila, ordenagailua...) izanez gero, lagunak edo familiakoak gorde dezala.** Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.
7. Telebista ospitaleaz kanpoko zerbitzua denez, eta txip-txartelaz ibiltzen da, eta entzungailuak behar dira entzuteko. Maturarik bada edo premiarik baduzu, dei ezazu 1422 telefono-luzapenera. Telebista eta telefonoa sistema integratua direnez, telebistak ezin dira deskonektatu, telefono-zerbitzua automatikoki itzaliko litzateke-eta.
8. Kafetegi-zerbitzua:
 - Ordutegia: 7:30etik 22:00etara..
 - Erdi-*sotoko solairuan dago.*
 - Igogailuen atarian kafe- eta edari-makina dago.
9. Ospitalizazio-ziurtagiria Pazienteak Onartzeko Zerbitzuan jasotzen da, beheko solairuan; datu gehiago behar badituzu, galdetu Erizaintzako kontrolean, eta dagokizun idazkaritzarekin jarriko zaituzte harremanetan.
10. Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.

PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILAREN ARRETA ZERBITZUA
(P.E.A.Z.) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.